

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onartzea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa

Behin igarota ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko hasierako erabakia jendaurrean edukitzeko epea –2016ko azaroaren 9ko bilkuran onartu zen, eta haren iragarkia 2016ko azaroaren 21eko ALHAOn (130 zk.) argitaratu– , eta nola eta epe horren barruan ez den aurkeztu erreklamaziorik ordenantzaren aurka, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako toki ogasunak arautzen dituenak, 16.3 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49.c) artikuluan xedatzen dutenaren konforme.

Beraz, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, argitara ematen da tarifen eranskina, indarrean sar dadin.

Eranskina

TARIFA

KARGATASA

Hiri ondasunak: ehuneko 0,18

Landa ondasunak: ehuneko 0,43

Erabakia behin betiko onarturik, administrazio bidea amaitu egiten da, eta erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edonola ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Zalduondo, 2017ko urtarrilaren 4a

Alkatea

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE